ASTEKARIA - 2008ko ekainaren 6an - XII. urtea - Usurbil, 326. zenbakia

# Noaua!!

www.noaua.com



Lan txukuna osatu dute Herriarteko Txapelketan



Izaskun Txintxurreta, Nekazaritza eta Ingurumen teknikari berria

## “Udazkenean hasiko da atez ateko bilketa-sistema”

# ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

**100 URTE**

# EKAINAK 8, USURBILEN



## Herri kirolak

**Goizeko 11.00 GOIKO PLAZAN**

Herrien arteko euskal jolas eta joko jaialdia.
Besteak beste ondoko herri hauek arituko dira lehian:
Egia, Igeldo, Antigua, Tolosa, Ibarra...

## Eguerdian Bazkaria

**SAIZAR SAGARDOTEGIAN**

**Menua:**

Urdaiazpiko iberikoa
Foie
Zainzuriak
Porru eta ganba krepak
Entsalada epela
Txuleta
Tarta izozkiarekin
Kafea eta kopa

**Prezioa: 37€**
**Bazkideak: 18€**

Txartelak Alkartasuna kooperatiban "sindikatuan" eskura ditzakezu.



## Idi Dema

**Arratsaldeko 19.00 USURBILGO DEMA PLAZAN**

**Partaideak:**

1.- Billelatik LOPETEGI
2.- Itziartik IXAMA
3.- Lasartetik TELLERIA

**Sariak:**

1.- 960€ + Mantak
2.- 900€
3.- 840€

**Sarrera: 10€**
**Bazkideek: Doan**



Antolatzailea — ALKARTASUNA 100 URTE

Laguntzailea

## Albistea iruditan !!

# Euriak ez zuen kontzertu-gosea ito

AHT Gelditu Elkarlanak antolatutako Gelditour ekimen erraldoia Donostian eta Usurbilen amaitu zen pasa den larunbatean. Egunean zehar hiriburuan ekitaldi ugari izan ziren; tartean, arratsaldean erdiguneko kaleak zeharkatu zituen manifestaldi jendetsua. Gauez, Sutagar, Kaotiko, Etsaiak, Naizroxa, Dj Bull eta Garraxi musika taldeen emanaldiak izan ziren Usurbilen. Euriteak ez zituen herritarrak etxean gerarazi. Eta frontoia eta Askatasuna plaza jendez bete ziren, goizaldeko ordu txikiak arte.



GARRAXI TALDEAREN SAIOAREKIN AMAITU ZEN LARUNBATEKO KONTZERTUA.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

SEKAÑAKO ETXEBIZITZAK, ETENDA — 5. OR.

AZKEN UDALBATZAKO ERABAKIAK — 6. OR.

IZASKUN TXINTXURRETA, SOLASEAN — 10. OR.

GIRO EDERRA IKASTOLAREN EGUNEAN — 12. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAK

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8,behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA



JOXE PIÑAS

# Sagardoaren etxean

Maiatzaren azken aurreko igandea, eguerdiko 11ak elizako dorrean, herriko kaskoko etxeak txuri gorrizko ohialekin apainduta...

Frontoiko taulatu gainean herriko bertsolariak, txalapartaren soinua, irrintzia eta omenaldia jaso duten herritarrak...

Dema plazan ehun bat sagardo botatzaile herritar prest...

Frontoiko taulatu gainean hiru sagardo botila ireki dituzte; beso bat jaso eta bestea luzatu, goiko besoan botila okertu eta behekoan basoa prestatu.

Dema plazan ehundaka sagardozale prest...

Frontoiko taulatuan gainean sagardoa botilatik erortzen...

Dema plazan irribarrak...

Frontoiko taulatu gainean...

Dema plazan...

Txinparta!!

Hasia da; lehenengo botila irekitzen dugu, elkarri begira lehenengo basoa betetzen dugu. Txotx esan...topa egin...eta edan.

Sagardozaleak aurrean dauzkagu, erosi dituzten baso grabatuak mahai gainean uztean beraien aurpegiaren espresioak ilusioa islatzen du. Edaten dute, eskerrak ematen digute, beste postu batera doaz... besteak datoz, besteak doaz...

Pintxo postuko kideek kroketa banatzen digute. Lagunek eta senideek pintxoak ekartzen dizkigute. Kidetasuna goizeko 8etatik nabarmena da.

Ordu bete pasa da sagardoa banatzen hasi garenetik. Herria trikitixaren soinuaz alaiturik bizi da, herriko eta kanpoko sagardozale sagardoz alaiturik gaude. Herritarrak, lagunak, kanpokoak, ezezagunak... sagardoak “txispatzen” gaitu, sagardoak txispa baitu.

Eguerdiko hamabi eta erdiak pasata, botatzaileen lehiaketa hasi berria da. Badakizue, betiko botatzaile... beno aurten kantabriar bat omen dagoela... emaitzan sorpresarik ez. Ni aurten ere laugarren ote?

Iluntzean pixkanaka jendea erretiratzen hasia da.

Herritar askok biharamuna jai hartu dugu. Ajia arintzeko atzoko hainbeste anekdotak elkarri kontatzea baliogarria izango da.

Urte asko pasa ahala Sagardo Egun horretan gertakizun hura elkarrekin urtero gogoratzen dugu.

Eta pozik gaude, alai... harro sentitzen gara aurten ere oroimenerako momentuak bizi eta sortu baititugu.

Erritual asko dira Sagardo Egunean eta ohitura zahartzen dugun heinean, abegitsua sortuz eta sortuz, sortzen goaz.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - **Joxe Piñas** - Unai Agirre

**Ika-mika !!**

# 21. astea

LABen ibilbidea oztopoz beterik egon dela jakiteko, Sindikatuaren historia irakurri besterik ez dago. Langile Abertzaleen Batzordeak gaur egun duen mailara iristeko gainditu behar izan dituen zailtasunak garbi azaltzen dira bertan.

Hirurogeita hamargarren hamarkada amaieran eta laurogeiko hasierako zatiketa hura atsegina izan ez arren, Madriletik euskal langileon aurka egindako lege zapaltzaileei aurre egin behar izan dio sindikatuak, eta zer esanik ez baskongadetan sindikatu errepresentatiboa lortzeko edo Nafarroan dituen emaitzetara iristeko urteetan eraman duen borrokaz.

Aipatutakoaz gain, beste aurrerapauso garrantzitsuen zerrendan jarri behar dira, Euskal Herri osoan (Ipar eta Hegoa) zabaldu eta txertaturik dagoen euskal sindikatu bakarra izatera iritsi izana, eta zer esanik ez nazioarte mailan lortu duen sinesgarritasuna.

Sinesgarritasun horren adierazle dugu urteko aste horretan, LAB eratzaile izanik, Donostian burutu den mundu mailako UIS-Metal-Meatzarien kongresua eta nazioarte mailako konferentzi sindikala.

Hori gutxi balitz, aste berean zazpigarren Biltzar Nagusia izan du LABek. Bertan, gehiengo zabalarekin orain arte izan duen ildoari eutsiko dion zuzendaritza berri-gaztea aukeratu du. Hurrengo urteetarako erronkak zein izango diren zehaztu eta aurre egiteko biderik egokienak zein diren zehaztu dira Biltzarrean.

Biltzarraren amaierako ekitaldiaren hasieran, orain arte izan den zuzendaritza oholtza gainera igo zenean txalo zaparrada jaso bazuen, amaieran igo zen zuzendaritza berriak ez zuen txikiagoa jaso.

Orain arteko zuzendaritzak jarraipen sendoa jaso zuen ekitaldian, eta ziur naiz biltzarkideok aukeratu dugun zuzendaritzak orain arteko ildoari eutsiko diola.

Beraz, urteko 21.aste horrek izan eta erakutsi duen, digun garrantzia azpimarratu beharrean nago, eta orain arte bezala borrokaren bidez LABek aurrerapausoak ematen jarraituko duela ziur nagoenez, eutsi goiari eta jarrai orain arteko bideari.

**Orkatz**

# Sekañako etxebizitzak, etenda

**A-34 identifikagarria duen Sekaña lur eremuko etxebizitza lanak geldiarazita daude Udalaren aginduz, araudietan zehaztutako eraikigarritasun muga gainditu delako. Hasieran zantzuak baino ez zirenak, udal txosten batek baieztatu zituen; araututakoa baino 616,72 metro koadro gehiago eraiki dira aipatu lur eremuan.**

Une honetan hiru etxebizitza bloke eraikitzen ari dira Sekaña lur eremuan: Gailurberri SL enpresak lehen zenbakia; bigarren eta hirugarrenak aldiz, Sekaña Promociones SL enpresak. Guztira 68 etxebizitza kokatuko dira bertan. Udalaren aginduz urbanizazio horretako eraikuntza lanak etenda daude une honetan, eraikigarritasun muga gainditu baitute.

**IRREGULARTASUNAK**

“Arautua dagoena baino 616,72 metro koadro gehiago eraiki dituzte”

Hau da, arautua dagoena baino 616,72 metro koadro gehiago eraiki dituzte bertan. Martxotik jada horren zantzuak atzeman zituen udal gobernu taldeak. Apirilean egindako txosten tekniko batek, uste horiek egiaztatu zituen.



LURZORUAREN LEGEAK DIOENA BETETZEKO HILABETEKO EPEA EMAN ZAIE ENPRESA ERAIKITZAILEEI.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 219. artikuluak horrelako irregulartasunen aurrean esku hartu eta lanak etetera behartzen du Udala. Alde horretatik bi aukera zituen; eraikitzen ari ziren etxeak eraisteko agindua ematea edota eraiki diren metro kopuru erantsi hori legeztatzea, Arau Subsidiarioetan aipatu aldaketa jasota. Bigarren aukera horren alde eginda, udal gobernu taldea enpresa eraikitzaileetako ordezkariekin harremanetan jarri da eta erantzuna jaso dute jada. “Ofizialki, gehikuntza hori ez dute onartu”, adierazi du alkate Xabier Mikel Errekondok.

### Isuna jaso dezakete enpresek

Lurzoruaren Legeak dioena aintzakotzat hartuta, hilabeteko epea emango zaie bi enpresei, egin beharreko moldaketak udaletxean aurkez ditzaten. Edozein kasutan, alkateak adierazi duenez, “borondatezko arau haustea egon da”. Arau-hauste larritzat jotzen da gertatutakoa. Beti ere, Lurzoruaren Legeak zigorren alorrean aurreikusten duenez, eraiki diren metro kopuru erantsi horren truke jaso ditzaketen irabaziak bahitu behar dira. Eta araudiak dioenez, 5.000-50.000 euro arteko isuna jaso dezakete enpresek. Gauzak hala, datozen egunetan Udalak zigor espedientea martxan jarriko du.

# Haur Eskolaren etorkizuna, bide onetik

**Urte hasieratik, Haur Eskolaren etorkizuna aztertu eta behin betiko irtenbide bat lantzen aritu den Hezkuntza Mahaiko partaideek jada proposamen bat osatu dute. Orain, adostutakoak onartze bideari ekingo dio.**

Iaz, behin behineko irtenbidea eman zitzaion Haur Eskolaren egoerari eta era berean, konpromisoa hartu zen, udaberri honetarako behin betirako konponbidea emango zitzaiola 0-3 adin tarteko hezkuntza eskaintzaren etorkizunari. Hezkuntza Mahaia osatu zen, gaian inplikatuta dauden agenteekin. Urte hasieratik, bertan, udal ordezkariek, Haur Eskola eta Udarregi Ikastolako zuzendaritzek, eta gurasoen ordezkariek parte hartu dute. Alde guztietatik egin den lanketa handiaren ostean, alkate Xabier Mikel Errekondok adierazi duenez, “une honetan gaiari behin betiko irtenbidea emango dion eta Hezkuntza Mahaiaren gehiengoak onartzen duen proposamen bat dago”.

Guztiek onartzeko modukoak diren zutabe batzuk finkatu direla jakinarazten dute. Oinarri adostuok Haur Eskola proiektuaren iraupena ziurtatuko lukete, baita irakasleen egitura ere. Eta 0-16 hezkuntza eskaintza horretan txertatua geratuko litzateke. Orain arte egin den lanketaren helburu nagusietako bat, hain zuzen, gurasoek ordaindu beharreko kuotak arintzea izan da, alkatearen esanetan. Kalezarko Haur Eskolaren eraikinean lau gela berri egokitzen ari da Udala, datorren ikasturtean bertan 0-3 urte arteko haurrak jaso ahal izateko.

Proposamenak aurrera egitea espero dute bultzatzaileek, guztien oniritziarekin. Egokiena herritik bertatik eginiko kudeaketa izanik, herritarron onurarako izango dela baitiote. Bide horretan, ondorengo egun hauek funtsezkoak izango dira Haur Eskolaren etorkizuna argitzeko.

# Zentsura mozioen aurkako mozioa onartu da

**Dimisio eskaerak, zentsura mozioak eta oro har, ezker abertzalea isolatzeko estrategiak antzuak direla gogorarazi edota proiektu politiko guztiek aukera berdintasunean lehiatzeko eskubidea dutela jasotzen du maiatzaren 27ko ohiko osoko bilkuran aurkeztu, bozkatu eta onartu zen mozioak. Testuak, sinadura eman duten herritarren babesa du.**



MAIATZAREN 27KO UDALBATZA PLENOAN, MOZIO EZBERDINAK AZTERTU ZIREN.

EAE-ANV udalean egoteko zilegitasuna azken udal hauteskundeetan lortutako euskal herritarren ia 200.000 bozkek ematen dutela gogorarazten da mozioan. Ondorioz, azken aldian aurkeztu diren zentsura mozioak herri borondate horren aurkakoak eta behin eta berriz porrot egindako estrategiak direla gogorarazten da.

**ALDERDIEN LEGEA, SOBERAN**

"Aniztasun soziala eta ideologikoa onartu behar den aldetik, Alderdien Legea soberan dagoela dio Aralarrek"

Indarkeria espresio ugari egonik eta gaitzespenek arazoa konponduko ez dutela adierazita, gatazka politikoa eta armatua eragiten duten sustraietara jo behar dela zehazten da; autodeterminazio eta lurraldetasunaren korapiloak askatu beharrak daudela gogorarazten da.

Euskal Herriaren eskubideak aitortu, euskal herritarrek bere etorkizuna erabakitzeko pausoak eman eta erabakitakoa errespetatzea galdegiten da. Euskal gizarteak duela 30 urtekoa errepikatu ez eta egungo markoa gaindituko lukeen eskenatoki demokratikoa nahi duela ohartarazten da.

### Ezohiko bozka kopurua

Besteak beste, Sagardo Egunean dokumentua sinatu zuten herritarren babesa du mozioak. EAE-ANVko ordezkariek ere mozioaren alde bozkatu zuten. Aralarreko zinegotziak abstenitu ziren eta PSE-EEkoak aurka bozkatu zuen. EAJ-PNVko eta EAko ordezkariak ez ziren egon osoko bilkuran.

Aralarrek ariketa demokratikotzat jo zuen mozioak aurkeztea. Aniztasun soziala eta ideologikoa onartu behar den aldetik Alderdien Legea soberan dagoela adierazi zuten. Gogoratu zuenez, "urraketak onartezinak dira alde guztietatik". Elkarrizketarako deia egin eta erabakitzeko eskubidearen alde agertu ziren.

# EA eta EAJ-PNVko ordezkariak ez ziren plenoan izan

EA eta EAJ-PNVko udal ordezkariak maiatzaren 27ko ohiko osoko bilkuran egon ez izana salatu du EAE-ANVk. Halakorik egiteko eskubidea dutela argi utzita, jokabide ez zuzentzat eta erantzukizun falta gisa definitzen du udal gobernu taldeak, aipatu alderdien jarrera. Eta ez agertzeko erabakiaren zergatia ez dakitela gaineratzen dute.

Osoko bilkurako gai zerrendan garrantzi handiko gaiak zeuden, hurrenez hurren: aktaren onespena, jasangarritasunaren alorreko Ekintza Plana, helegite baten tramitaziorako abokatuen izendapena eta bi mozio; ezker abertzalearen isolatzea eta kriminalizatzea salatuz 538 herritarren sostengua jaso duen idatzia eta palestinarren aldekoa, Israelen sorreraren 60. urtemugan. Akta, orrialde batzuen faltan, mahai gainean geratu zen. Bertaratu ez izanak osoko bilkurako lehen puntutik azken punturaino, bizkar ematen diola adierazi du Xabier Mikel Errekondok.

# Ekainaren 14an, UEMA eguna

Azpeitian ospatuko da 52 udalerri biltzen dituen Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) eguna. Egun osorako ekitaldiak antolatu dituzte datorren ekainaren 14rako. Pilota partidak edota herri kirol lehia, harrera instituzionala eta ekitaldi nagusia, bazkaria, haurrentzako ekitaldiak edota musika emanaldiak iragarrita daude.

# Jasangarritasunari lotutako Ekintza Plana, aurrera

**Datozen urteetan herri jasangarriago bat izateko bidea zehaztuko duen dokumentua eraman zuen udal gobernu taldeak azken osoko bilkurara; Ekintza Plana. Udalbatzaren onarpena jaso zuenez, etorkizunean dokumentuan zehazten diren egitasmoak abian jartzen joango dira.**

Hemendik aurrera jarraituko duen bezala, jasangarritasunaren alorreko planak bide luzea egina du orain artean. 2001ean diagnostikoa egin zen eta lau urte beranduago, azterketa hartan eskuratutako emaitzak ekintza zehatzetan bildu ziren. Baina urte hartan egindako batzordeetako batean, gaia mahai gainean uztea erabaki zen.

**BABES ZABALA**

"EAE-ANV eta Aralar alderdiek Ekintza Plana babestu dute; PSE-EE abstenitu egin da"

Orain, premiazkoa dela ikusita, EAE-ANVk gaia osoko bilkurara eraman du. EAE-ANVko udal ordezkari Imanol Azpirozek gogorarazi zuenez, "oinarrizko dokumentu bat da, ekintza askokoa". Horregatik, bertan aipatzen diren egitasmo bat baino gehiago martxan jartzeko legegintzaldi bakarra nahikoa ez dela izango gaineratu zuen. EAE-ANV eta Aralarko ordezkariek babestu zuten Ekintza Plana. PSE-EEko ordezkaria abstenitu egin zen.

### Atez ateko bilketa, egitasmoen artean

Honako sei ildo estrategiko nagusietan sailkatu eta gauzatuko dira, etorkizunean aurrera eramango diren egitasmoak: ura eta energia bezalako natur baliabideen zainketa; kutsadurari aurre egin eta hondakinak gutxitzea; herrian mugitzeko eta ingurune fisikora iristea hobetzea; baserri ingurunea sustatu eta lurzoru eta natur guneak babestea; udal zerbitzuen kudeaketa jasangarria izatea; eta ingurugiro heziketa eta gaiari buruzko informazio zerbitzua sustatzea.

Azken plenoan aztertu zen dokumentuak ordea, azpimarratzekoa den moldaketa bat dakar. Lehendik osatua zegoen Ekintza Planean, hiri hondakinen gaiari lotuta honakoa proposatzen zuen: zirkulazioari traba egin edota herria itsusiago egiten zuten guneetan, hondakinak biltzeko edukiontziak lurperatzea. Egitasmoa maila txikiko lehentasun gisa izendatua zegoen eta epe luzera gauzatzea aurreikusten zen, lau urtetara.

Aipatu bezala, oraingo udal gobernu taldeak egokitu egin du egitasmo hori. Epe laburrera, urtebetera eta lehentasun handiz gauzatu beharreko egikizun gisa izendatu dute, edukiontziak lurperatu ez, baizik eta udalerrian atez ateko bilketa zerbitzua jartzeko egitasmoa. Asmoa gauzatzeko, lehen Udalaren parte hartzea soilik aurreikusten zen. Orain, moldaketak egin ostean, Udaleko Hirigintza, Ingurumen eta Zerbitzu departamendua, San Markosko Mankomunitatea eta Foru Aldundia elkarlanean aritzea planteatzen da.


UDAL ZERBITZUEN KUDEAKETA JASANGARRIAGOA IZATEA DA ILDO ESTRATEGIKOETAKO BAT.

## Repsolen abisu oharrak, erdaraz

Azken egunetan Repsol gas instalakuntzak ikuskatzen ari da Usurbilen. Baina horren berri ematen duten jakinarazpen orriak erdara hutsez daude. Udaletik adierazi dutenez, idatzia bidali dute eta egoera salatzeko herritar kaltetuei honako telefono zenbakira deitzera animatzen dute: 943 336 065.

# Palestinarrei elkartasuna adierazten dien mozioa onartu zen

Palestinarrekiko elkartasuna adierazztea helburu duen mozioa aurkeztu zen azken udalbatza saioan. Aipatu herritarren eskubideak bermatzea eta israeldarrak okupatutako lurraldetik erretiratzea eskatzen da. Baldintza horiek betetzen ez diren artean, Israelen aurkako boikota egitera deitzen da onartu den testuan.

Palestinako lurralde okupatutik Israelgo gizarte zibila, gobernua eta armada erretiratu ez eta palestinar guztien eskubide guztiak bermatzen ez diren artean, boikoterako deia egiten zuen mozioak. Boikota Israelgo produktuei eta estatu horri lotuta udalerrian egin daitezkeen kirol, kultura, akademia eta intelektual mailako jarduerei. Era berean, Israelekin negozioak eta inbertsioak egiten dituzten enpresa eta erakunde finantzarioei, halako jarduerak etetea eskatzen zaie.

Aralarreko ordezkariek boikot deialdiaren aurka zirela agertu zuten. Horregatik, mozioa puntuz puntu bozkatzea eskatu zuten. PSE-EEtik politika eta kultura desberdintzeko beharra azpimarratzen zuen Amaia Goyaranek.

EAE-ANVtik mozioa bere osotasunean bozkatuko zela adierazi zen. Bestalde, kultur ekitaldiei aurkakotasuna adieraztearekin, ekitaldia bera ez, helburua estatu israeldarrari boikota adieraztea dela argitu zuten. Gauzak horrela, mozioaren alde bozkatu zuen EAE-ANVk, aurka Aralarrek eta PSE-EEko ordezkaria abstenitu zen.

# Datorren astean, bigarren eskuko azoka Dema plazan

**Erabilitakoa zaborretara botatzea eragotzi eta berrerabilpena sustatu asmoz, San Markosko Mankomunitateak bigarren eskuko azokak antolatuko ditu datozen asteetan, eremuko hamar udalerritan. Datorren astean, Dema plazara iritsiko da azoka.**



Iaz ere egin zen antzeko azoka Usurbilen.

San Markosko Mankomunitateak "merka2sanmarcos" bigarren eskuko merkatuen hirugarren edizioa antolatu du. 11 merkatu egingo dira guztira, San Markosko Mankomunitatea osatzen duten udalerri bakoitzean bat, Donostian izan ezik, bertan bi egingo baitira. Lehen merkatua Lezon izan zen, maiatzaren 18an, eta Urnietak emango dio amaiera kanpainari ekainaren 29an. Usurbildik datorren larunbatean pasako da bigarren eskuko azoka.

Ekimen honek, herritarrei berrerabilera-esperientzia praktiko bat egiteko aukera eskaintzea du helburu, eta baita hondakinen prebentzioaren eremuko ekimenen informazioa zabaltzea ere.

Azokan jarriko diren salmenta postuak erreserbatzeko aukera dute norbanako edota talde zein elkarteek. Izena ematea zabalik dago jada.

Salmenta posturen bat erreserbatu nahi duenak, aldez aurretik izena eman behar du. Internet bidez, www.merka2sanmarcos.org atarian. Telefonoz, 943 670 249 zenbakira deituz, astegunetan 9:00-18:00 artean deituta. Eperik egon ez arren, erreserbak azoka eguna baino dezente lehenago egitea gomendatzen dute antolatzaileek.

## Imsersoko bidaiak, azken txanpan

Oporraldi hauetara joateko baldintza hauek bete behar dira: 65 urtetik gorakoa izatea, edo jubilazioko pentsionista, 55 urte edo gehiago dituen alarguntzako pentsionista edota 60 urtetik gorako bestelako pentsionista. Hauek bakarrik edo senar-emaztearekin egin dezakete bidaia, azken hauek baldintzak bete beharrik ez dutelarik.

Eskaintzen diren bidaiak iraupen ezberdinetakoak dira, 8 eta 29 egun artekoak, prezioak egun kopurua eta joan nahi den lekuaren araberakoa izanik. Andaluzia, Katalunia, Murtzia, Valentzia, Balear irlak, Kanariar irlak eta Portugal dira eskainitako lekuak; kultur bidaiak eta naturazkoak ere badira aukeran.

Prezioak 135 eta 570 euro artekoak izan daitezke, aukeratutako bidaiaren arabera. Prezio horretan sartzen da joan-etorriko bidaia, egonaldia pentsio osoan, asegurua, hoteleko mediku zerbitzua eta animazio programa.

Informazio gehiago Udalean, Gizarte Zerbitzuetan, edo 901 109 899 telefono zenbakira deituta.









www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

# Labore ikastaroan egindako lanak

# Sutegin jarri dituzte ikusgai

**Gantxillo edota bolillo lanak ikusi daitezke egunotan Sutegin. Egileak, Einean Guraso Eskolak antolatutako labore ikastaroan parte hartu duten herritarrak dira. Erakusketa zabalik egongo da, ekainaren 6tik 9ra.**

Sutegiko erakusketa aretoan herritarren lanez josita egongo da datozen egunotan. Urtean zehar, labore ikastaroan parte hartu duten herritarrek hainbat lan egin baitituzte eta horiek erakusketa batean bildu dituzte orain. Ekainaren 6tik 9ra ezagutu ahal izango dira Einean Guraso Eskolak antolatutako ikastaroan egin diren lanak. Erakusketari hasiera emateko, bilgune beraren eskutik antzezlan bat ikusteko aukera ere izango da.

### Antzezlana Sutegin

"Gezurra gezurraren gainean" izena du ostiral honetan, ekainak 6, 22:00etik aurrera Sutegin ikusi ahal izango den antzezlanak. Lierni Fresnedok zuzenduta, ironia, sarkasmoa eta une barregarri ugari tartekatzen dira bertan. Dario Foren bi antzezlanetan oinarritua dago. Negozio berezi bat eta egoera nahasi baten ostean, errealitatea zenbateraino itxuraldatu dezakegun azaleratuko da antzezlanean. Inozentziatik maltzurkeria eta alderantziz, maltzurkeritik inozentziara dagoen bidea uste baino laburragoa dela antzeman ahal izango da, eszena berean.

Halaber, kanpoko itxurak norbere patuan edo jatorrian zenbateraino eragiten duen, zerikusirik ba ote duen ere egiaztatzeko aukera izango du Sutegiko auditoriora hurbiltzen denak. Nor da nor jokoan murgilduko da ikus-entzulea. Sarrera doan.



ERAKUSKETAREKIN BATERA, ANTZEZLANA ANTOLATU DU EINEAN GURASO ESKOLAK.

## Ziklomotorraren azterketa egiteko azken aukera

Maiatzean bitan izan da azterketa egiteko aukera. Hirugarren aukera ere izango da, datorren astean, ekainak 12. Dena den hitzordua eskatu behar da Udaltzaingoan.

Datorren ostegunean, ekainak 12, IAT-ITV delako lan-talde bat hurbilduko da Askatasuna plazara. Baina txanda eskatzeko, Udaltzaingora deitu behar da lehenik, 943 361 112.

Ez ahaztu 22 euro ordaindu behar direla azterketa teknikoa pasa ahal izateko.

## Bizikleta galdu duzu?

Pasa den igandean, irudiko bizikleta agertu zen Sutegi ondoan. Galdu duenak Udaltzaingora jo dezala.












BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42




*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia, 2 1.C4 — 20170*
*Tlf **943 37 08 78** — USURBIL*

### Izaskun Txintxurreta, Nekazaritza eta Ingurumen teknikari berria

# "Zabor poltsa ontzira eraman beharrean, norberak bere etxe atarira atera beharko du"

**Nekazaritza eta Ingurumen teknikari berria du Udalak; Izaskun Txintxurreta. Postua hartzearekin batera, lehentasun nagusia duen eta Euskal Herri mailan lehen aldiz garatuko den proiektuari heldu dio; urte amaieran jarri nahi den hondakinen atez ateko bilketa sistema martxan jartzeko lanari hain zuzen. Laster, zaborren kudeaketan egin nahi diren aldaketei lotuta, izaera parte hartzailea izango duen sentsibilizazio eta komunikazio kanpaina martxan jarriko dute herrian. Egitasmoa, udalbatzak onartu berri duen jasangarritasunaren alorreko Ekintza Planeko ekimenetako bat da. Egitasmo gehiago ere jasotzen baititu.**



ATEZ ATEKO HONDAKINEN BILKETA SISTEMA BERRIA, URTE AMAIERARAKO JARRI NAHI DA MARTXAN. HORREGATIK, LASTER ABIARAZIKO DU UDALAK, ELKARTE ETA HERRITARREI ZUZENDUTAKO PROZESU PARTE HARTZAILEA.

**NOAUA! Udalak Nekazaritza eta Ingurumen Teknikariaren postua berreskuratu du. Beharrezkoa izan arren, askotan bigarren mailan gelditu ohi den alorra?**

**Izaskun Txintxurreta.** Zalantzarik gabe. Udaletxe askotan dago Hirigintza eta Ingurumen departamendua, baina finean eta praktikan hirigintza gaiak lantzen dira. Ingurumen batzordea hor dago sortu beharra dagoelako, baina bigarren mailako alorra izan da beti. Udaletxe askotan lehen aipatutako txosten eta informeak arkitektoak egiten ditu.

> **IZASKUN TXINTXURRETA**
>
> "Atez ateko bilketaren inguruko apustua egitera doa Usurbil"

Baina Nekazaritza eta Ingurumen Teknikaria beste gauza batzuetarako dago. Herri guztietan egon beharko luke. Gainera nekazal lur sailekin eta ingurugiroarekin zer gertatzen ari den ikusten ari gara.

**N. Hemendik aurrera, oro har, zein izango da zure egitekoa?**

**I. T.** Lur ez urbanizagarrian kokatzen diren jardueren eta erabilpenaren inguruan informatzea eta txostenak egitea. Era berean, jarduera berria baldin bada edo lehendik dagoen bat izanik, eguneratu egin behar den ikusi behar. Bestalde, lur ez urbanizagarrian baserriak edo etxeak berritu edo berriak egin behar baldin badira, horren inguruan informatzea, jendeari zer bide jarraitu behar dituen jakinaraztea; udaletxetik bideratu behar direnak hemendik bideratu. Aldundira bideratu behar diren kasuetan, egin beharreko tramiteen berri eman.

Bestalde, betelanak kontrolatu eta lur ez urbanizagarriko nekazaritzaren eta ingurumenari buruzko informazioa ematea. Alde urbanistikoa arkitektoak egiten jarraituko luke, baina Ingurumenari lotutako txostenak nire eginbeharrak izango dira.

Baita ingurugiroari lotutako ekintzak eta proiektuak aurrera eramatea, jarraipena egitea, ideiak ematea. Hor dago ere onartu berri dugun Ekintza Plana. Hori ere martxan jarri, foroak sortu, bertan jasotzen diren jarduerak martxan jarri eta baloratu...

**N. Eta ezin ahaztu hondakinen gaia. Proiekturik azpimarragarriena une honetan?**

**I. T.** Buru-belarri eta ehuneko ehuna eskatzen duen lana zaborraren inguruko proiektua da. Atez ateko bilketaren inguruko apustua egitera doa Usurbil. Momentu honetan, buru-belarri horretan gabiltza; hara eta hona, proiektuak ikusi, aurrekontuak eskatzen. Halako lanetan.

**N. Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna da. Zer egin asko dago alor honetan?**

**I. T.** Udalerri bakoitzaren errealitatea oso ezberdina da baina, bat batean aipatzeko adibidez, industria dagoen herrie-

tan lanketa handia egin behar da. Udaletxeak izan behar du hori bultzatuko duena. Industriak askotan bere kabuz, behartuta egon arren, ez dituzte ekintzak praktikan jartzen; horregatik, industria guneetan, isurketak, airera botatzen dituzten gasen kontrola bideratu behar da… Eta ekintza horien guztien berri jendeari zabaltzea. Herriko errealitatea zein den eta udaletxetik zer egiteko asmoa dagoen jakinaraztea.

**N. Plenoan onartu berri da Jasangarritasunari lotutako ekintza plana. Gai izarra, atez ateko bilketa sistema da.**

**I. T.** Pauso eta erronka handia da era berean. Ekintza plana egina zegoen 2005etik, baina oraindik onartu gabe. Pauso garrantzitsua izan da plenoak onartzea, hor agertzen diren jarduera ezberdinak martxan jartzeko. Lehentasunak markatu beharko dira orain eta zehaztutako epearen barruan egin. Une honetan, geure erronka nagusia eta jada martxan jarri beharreko gaia, zaborrarena izango da. Ekintza Planaren barruan gai horri lotutako jarduera bat aldatzea proposatu zen. Garai batean zabor ontziak lurperatzeko joera zegoen. Aldiz, ikusi da atez ateko bilketa sisteman horrek ez duela lekurik. Horregatik, Ekintza Planean egitasmo hori aldatzea proposatu da.

**IZASKUN TXINTXURRETA**

"Egutegi bat izango da, eta horren arabera, dagokion hondakin zatia atera beharko da; organikoa batean, ontziak bestean…"

**N. Ekintza Planean, bada beste ekimen azpimarragarririk?**

**I. T.** Jarduera asko daude. Lehentasuna hori onartzea zen. 2005etik hor zegoen. Gu zaborraren inguruko jarduerarekin zentratu ginen. Argi dago gaurkotu behar direla ekintza horiek guztiak. Lehentasunak berriz aztertu beharko dira. Denak eguneratu beharko dira, herritarrekin bilerak egin berriz… Daudenak egokiak izan, aldatu edota berriak erantsi behar diren, eta lehentasuna zeri eman erabaki beharko da. Jarduera asko ere eginak egongo dira.

**N. Bilketa sistema berria martxan jarriko da egun batetik bestera. Herritarrek zer nolako aldaketak nabarituko dituzte?**

**I. T.** Egun horretatik aurrera, zabor poltsa ontzira eraman beharrean, norberak bere etxe atarira atera beharko du. Norberak egutegi bat izango du, eta horren arabera, dagokion hondakin zatia aterako du; organikoa batean, ontziak bestean… Dagokion egunean bere ontzia atera beharko du atarira. Hala, espazio gehiago izango dugu kalean. Lau ontzi dauden lekuan adibidez, bi aparkaleku sortuko dira.

**N. Errausketaren aurkako plataformek mozioak aurkeztu dituzte hainbat udaletan eta aurrera atera dira. Horrek ere bultzada emango dio hondakinen kudeaketan martxan jarri nahi diren aldaketei?**

**I. T.** Plenoetan onartzeak, bultzada, indarra eta pisua ematen dio proiektuari. Lanketa horretan jarraitzeko bidea irekitzen du.

# Atez ateko bilketari lotutako kanpaina, begibistan

**Atez ateko bilketa sistema urte amaierarako martxan jarri nahi da. Horregatik, laster, Udaletik izaera parte hartzailedun kanpaina abiaraziko dute.**

**NOAUA! Komunikazio kanpainarekin hastekoak zarete laster?**

**Izaskun Txintxurreta**. Orain data txarrak datoz, abuztua dago tartean. Geure asmoa da, abuztua artean, lehenengo erronda batzuk egitea herriko elkarte esanguratsuenekin. Gero, irailean biltzen hasiko ginateke sektore ezberdinekin, herriko talde edota auzo elkarteekin. Geure asmoa, prozesu parte hartzaile horretatik atez ateko bilketa sistema diseinatzea da. Herritarrek erabaki dezatela, Udalarekin batera zati organikoa astean zenbatetan jaso nahi duten, beirarekin, ontziekin eta gainerako zatiekin bezala. Herritarrek guri diseinua egiten lagun diezagutela. Hori egiten denean, martxan jarriko litzateke. Egun batetik bestera kaleko zabor ontzi guztiak desagertuko dira.

**N. Aldaketa handia izango da. Prestatzen joan beharko dugu?**

**I.T.** Erronka handia dugu parte hartze prozesuarekin. Horrek jendea kontzientziatzeko, proiektua zer den, zer lortu nahi den eta zer onura izango dituen azaltzeko balioko du. Eta jendeak bizi eta ikusi dezala. Parte hartzearekin batera, komunikazio kanpaina egin beharko dugu. Jendeak bizi egin behar du, proiektua bereganatu behar du. Denbora gutxi daramat hemen, baina herrian jendea galdezka dabil ia noiz hasi behar dugun, zertan ari garen… Badago herrian giroa. Jendeak zalantza



JENDEA ATEZ ATEKO BILKETAREKIN HASTEKO GOGOZ DAGOELA USTE DU IZASKUN TXINTXURRETAK.

asko ditu, guk oraindik ez dugulako ezer kanporatu. Baina jendearengan gogo hori badago, iruditzen zaigu, herritarrek erraz jasoko dutela, erraz kontzientziatu eta harrera ona izango duela bilketa sistema berriak. Abian diren esperientziak badaude, eta ez dira katastrofikoak.

# Giro ederra Ikastolaren Egunean

**Igandean Ikastolaren Eguna ospatu genuen. HHko haurrok ez dugu jolasetan parte hartzen baina kiroldegian jaialdi polit-polita egiten dugu.**

Aurten ere jende asko etorri da gu ikustera: gurasoak, aiton-amonak, izeba-osabak, anai-arrebak,… Jendeak asko txalotu gintuen eta gu oso pozik jarri ginen.

Jaialdiaren gaia "Nor da indartsuena?" izan zen eta han atera ginen denok mozorrotuta: batzuk eguzkiak izan ginen, besteak hodeiak, baita sator eta katuak ere eta aiton-amonak ere agertu ziren bertan.

Asko entseatzen dugu egun honetarako eta lan asko egiten dugu mozorroak prestatzen eta horregatik ateratzen da hain polita jaialdia. Hala ere, nahiz eta gogo handia izan dantza egiteko, batzuk oso urduri jartzen gara hainbeste jende guri begira ikustean.



GUSTURA ARITU ZIREN HAUR HEZKUNTZAKO IKASLEAK IKASTOLAREN EGUNEAN ESKAINI ZUTEN EMANALDIAN.

Datorren urtean ere egingo dugu honelako jaialdi polita eta berriz ere gonbidatuak izango zarete denok. Eskerrik asko gu ikustera etortzeagatik!

**HH-ko haurrak**

# "Marilurrek aitona Koxme salbatu du", larunbat honetako antzezlana Aginagako ludotekan

**Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitarauak Usurbilgo txoko ezberdinetara iristeko ohitura du. Kalezar eta Santuenea bisitatu eta gero, Aginagak jasoko du larunbat honetan Plis, Plas egitarauko ekitaldia. "Marilurrek aitona Koxme salbatu du" antzezlana Aginagako ludotekan egingo da, ekainak 7 larunbatarekin, arratsaldeko 17:00etan hasita.**

Sarrera doan izango da baina gogoan izan "Marilurrek aitona Koxme salbatu du" antzezlana 4 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendua dagoela.

Itsaso zabalean galduta dagoen uharte miragarri batean badago mendi bat. Mendiaren tontorrean zuhaitza dago, eta zuhaitzaren puntan lore bakar bat... Marilurrek lore hori beharko du aitona gaixoa sendatu ahal izateko.

Datorren astean, ekainak 14, Potxin eta Patxin pailazoen txanda izango da. Zubietako frontoian arituko dira, 17:00etan hasita.



AURREKO ASTEAN IRRINTZI TALDEAK "ZUK, ZUK JAUNAREN ALFABETOA" ESKAINI ZUEN SANTUENEAN.







# *Sindikatuak* ehun urte beteko ditu igandean

**Duela ehun urteko aktetan ageri denez, Alkartasuna Nezakal Kooperatiba, askok *sindikatu* izenarekin hobekiago ezagutuko dutena, ekainaren 8an jarri zuten martxan. 1908. urtean izan zen. Beraz, egutegiari begira, igande honetan hilaren 8an ailegatuko da mendeurrenera. Alkartasuna Kooperatibakoek urtemuga eguna ez dute ahaztu, eta egun osoko jaialdia antolatu dute.**

Alkartasunakoa bezalako kooperatiba gutxi geratzen da jada. Horregatik aipagarriagoa da ehungarren urtemugara ailegatu dela gogoraraztea. Azken asteetan, ekitaldi ugari antolatu dituzte; nekazal eta landa eremuari lotutako hitzaldiak, saioak… Zalantzarik gabe ordea, jaialdi garrantzitsuena igande honetan, ekainaren 8an ospatuko dena izango da, Alkartasuna Nekazal Kooperatiba martxan jarri zeneko eguna oroitzeko balioko duena.

### Euskal jokoak, idi-proba

Herrien arteko euskal jolas eta jokoetan arituko dira Gipuzkoako herri ezberdinetako hainbat kirolari talde, goizeko hamaiketatik aurrera frontoian. Sei gizon eta sei emakumez osatutako zazpi taldeek jarduera ezberdinetan duten trebezia erakutsiko dute. Hasieran, Gipuzkoako herri ezberdinetan espresuki egun horretarako osatu diren bost taldeek parte hartu behar zuten jaialdian. Baina azken unean, Alkartasunatik jakinarazi eta azpimarratu dutenez, Hernanik eta Usurbilek ere ordezkaritza izango dute goizeko jokoen jaialdian. Beraz, etxekoak ere lehia bizian arituko dira.

Goizean kirolariak lehian jarriko dituzte, arratsaldean aldiz, idi-probaren txanda izango da. Ikusi nahi duenak hamar euro ordaindu beharko ditu. Alkartasunako bazkideek ordea, doan izango dute. Txartelak, proba hasi baino lehen salgai jarriko dira Patri jatetxe pareko kioskoan.

### Bazkaritarako txartelak salgai

Eguerdian, bestalde, Saizarren bazkaria antolatu dute Sindikatukoek. Kontuan izan, Alkartasuneko bazkideek erdi prezioan izango dute otordua; 18 eurotan. Gainerakoek, 37 euro ordaindu beharko dituzte. Txartelak dagoeneko Alkartasuna Nekazal Kooperatiban salgai daude. Bertara joanda eskura daitezke.



HIRU UZTARRIKO IDI-DEMAK ARRAKASTA HANDIA IZAN ZUEN IAZKO FESTETAN. IGANDEAN, ARRATSALDEZ IZANGO DIRA IDI-PROBAK.

### Ekainak 8 igandea

**11:00** Herrien arteko euskal jolas eta joko jaialdia frontoian. Partehartzaileak: Usurbil, Hernani, Egia, Tolosa, Antigua, Ibarra eta Igeldo.

**14:00** Bazkaria Saizarren: bazkideek 18 euro, gainontzekoek 37 euro(txar telak salgai Alkartasuna Kooperatiban).

**19:00** Idi-probak Dema plazan: Itziarko Ixama, Billelako Lopategi eta Lasarte-Oriako Telleria. Sarrera: 10 euro, bazkideek doan.

# Ikastaroak eta hitzaldiak ekainean

**"Nola zaindu baratza produktu kimikorik gabe"**
Hizlaria: Jesus Calvillo.
Eguna: ekainak 4, asteazkena.
Ordua: 19:00.
Tokia: Sutegi.

**"Sagastien zaintza udan", ikastaroa**
Hizlaria: Aitor Etxeandia.
Eguna: ekainak 14, larunbata.
Ordua: 9:30.
Tokia: Sutegi.

**"Erlezaintza; nola lortu produktuak eta zertarako. Polinizazioa"**
Hizlaria: Elias Otegi.
Eguna: ekainak 21, larunbata.
Ordua: 9:30.
Tokia: Sutegi.

Ford
Usurbil Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitzezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

# Denboraldi bikaina osatu du Udarregi ikastolako infantil mailako futbol taldeak

**Aurreko astean, orriotan aipatu genuen bezala, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa irabazi du Udarregi ikastolako infantil mailako taldeak. Garaipen horri esker, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketa jokatzeko aukera izan dute. Berion (Donostian) jokatzen ari den txapelketan, Udarregikoek 3-2 irabazi zuten Arabako taldearen aurka; eta 2-1 galdu Bizkaiaren aurka. Larunbat honetan jokatuko dute azken partida, Nafarroako taldearen aurka, goizeko 10:00etatik aurrera.**

Iban Maritxalar eta Mikel Irastorza entrenatzaileak gustura daude jokalariekin, gurasoekin eta, orohar, denboraldi honetan egindako lanarekin.

Eskola Kirola proiektuan, emaitza da gutxienekoa. Partehartzea eta ondo pasatzea dira gehien sustatzen diren baloreak. Ez da erraza izan, 21 jokalariz osatzen baita taldea eta partidetara 18 jokalari eraman daitezke. Baina ondo erantzun dute jokalariek, bai irabazi eta baita galdu duten partidetan ere.

Larunbat honetan, Berion jokatuko dute Nafarroaren aurkako partida.



Bergararen aurka irabazi zuten Gipuzkoako txapelketa. Larunbatean, Nafarroaren aurka jokatuko dute Berioko (Donostia) futbol zelaian.

## 21 jokalariz osatzen da taldea

| | | |
|---|---|---|
| Aritz Zabaleta, atezain | Ibai Arrizabalaga | Xabier Ibarra |
| Manex Iribar, atezain | Inhar Gurrutxaga | Herri Harto |
| Iñaki Irazusta | Ander Mangas | Jon Ander Bruño |
| Zdravko Taran | Ander Osa | Xabier Aranburu |
| Iñaki Uli | Ander Azkorreta | Aratz Manterola |
| Jon Galvete | Endika Larrañaga | Iker Etxabe |
| Julen Berradre | Oihan Errekondo | Josu Zalakain |

# Ostiral honetan amaituko da Aitzagako Mus Txapelketa

**Bukatzear da pasa den urte amaieran hasi eta orain arte luzatu den Aitzagako Mus Txapelketa. Ostiral honetan, ekainaren 6an, gaueko 22:00etatik aurrera jokatuko da azken mus saioa Andatzpe elkartean. Ohiko sariez gain, orain artean puntu gehien bildu dituzten mus jokalariek sari bereziak jasoko dituzte.**

Azaroan hasita, hil bakoitzeko lehen ostiralean mus zaletuek hitzordua izan dute herriko elkarte ezberdinetan, Aitzagako Mus Txapelketa baitzegoen jokoan. Sei jardunaldi jada jokatu dira. Azken mus saioa ordea, ostiral honetan, ekainak 6 jokatuko da Andatzpe elkartean, gaueko 22:00etik aurrera. Parte hartzaileek 20 euro ordaindu behar dituzte, izena ematerakoan.

Ondoen jokatzen duten lau mus jokalari bikoteek, ohi denez, sariak jasoko dituzte. Lehenengoek, bi arkume, mariskoa eta xanpaina. Bigarren geratzen direnentzat, lau untxi, txangurroak eta xanpaina. Hirugarren eta laugarren postuan sailkatutakoek bina untxi eta txangurroak etxeratuko dituzte.

Sariei dagokienez, saio berezia izango da ostiral honetakoa. Azkena izanik, orain arte parte hartu eta puntu gehien pilatu dituzten muslariek sari bereziak jasoko dituzte. Horretarako, sailkapena kontuan izan behar da. Txokoaldeko Erroizpe elkartean jokatu zen azken aurreko jardunaldian, Mirotz-Aritz bikotea nagusitu zen. Azken mus saioaren atarian, sailkapena eta puntu banaketa modu honetan dago:



Azkena izanik, puntu gehien pilatu dituzten muslariek sari bereziak jasoko dituzte.

1- Joxelu-Iñaki, 400 puntu
2- Joxema-Joxemi, 380 puntu
3- Juantxo-Aitor, 340 puntu

# Zorionak, mutilak

**Herriarteko Txapelketa polita osatu dute Usurbilgo pilotariek. Aurreko ostiralean, ezin izan zuten Donostia mendean hartu eta txapelketatik kanpo geratu ziren. Baina lan ona osatu dute. Eta zaletuek primeran pasa dute bai Lasarte-Oria, Azkoitia nahiz Donostiaren aurkako partidetan.**

Frontoia jendez gainezka zegoen ostiral arratsaldean. Harmailak goraino, frontoiaren inguruan jendetza. Giro ederra osatu zen lehen partidatik. Baina Donostiako taldea 2-1eko abantailarekin zetorren eta horrek lasaiago jokatzeko aukera eman zien.

### Errifako sariak

Kadete mailako partidan, 22-14 galdu zuen Usurbilek eta jubeniletan, 22-18. Jada Herriarteko kanporaketa erabakita zegoen. Nagusien partida ez zen erabakigarria baina partida polita eskaini zuten bi taldeek.



HERRIARTEKO TXAPELKETAN, DONOSTIAREN AURKA ARITU ZIREN PILOTARIAK.

Donostiaren aurkako partidetan, hainbat errifa egin ziren.

Urdaiazpikoaren zozketan, Antonio Iraola izan zen irabazlea. Gaztaren errifan, 761 izan zen zenbaki saritua baina ez da irabazlerik azaldu oraindik. Zenbaki hori duenak, Pilota Elkarteko kideekin harremanetan jar dadila.

# Datorren astean, Eskubaloi taldeen festa handia

Usurbil KE taldeak antolatuta, Eskubaloi Festa ospatuko da datorren astean. Ikasturteko ahaleginak eta nekeak alde batera utzi, eta eskubaloiaz gozatzeko egun seinalatua izango da ekainaren 14koa.

Arratsaldeko 16:00etan hasita, kadete, jubenil, senior eta lehen ibilitako jendearen arteko partidak jokatuko dira. Festak jarraipena izango du Saizarren, afari batekin.

Tiketak salgai daude herriko tabernetan; eskubaloiko zuzendaritzako kideen bitartez ere eskuratu daitezke.

Menua sagardotegikoa izango da eta prezioak hauek: gazteak 19 euro (18 urtetik behera); eta helduek 25 euro (18 urtetik gora). Tiketak hartzeko epea ekainaren 7an amaituko da.




PATRIN BIRENTZAT AFARIA IRABAZI DU JOSUNE ARRUTIK, ESKUBALOI TALDEAK EGINDAKO ERRIFAN.

## Asteburuko emaitzak

**KADETEAK, FINAL-ERDIAK**

Santxo (Usurbil)-Etxamendi (Astigarraga) 22
Etxaniz-Aizpuru (Azpeitia) 15

Aizpitarte-Jauregi (Hernani) 22
Zugadi-Maiza (Añorga) 16

**JUBENILAK FINAL-ZORTZIRENAK**

Oiarzabal-Ulanga (Andoain) 22
Otegi-Manterola (Amezketa) 14

Zabaleta-Martin (Goizueta) 22
Pagola-Garmendia (Urnieta) 13

Kina -Biain (Zumarraga) 22
Ormaetxea-Lertxundi (Añorga) 8

**NAGUSIAK**

Erroizenea-Aranalde (Añorga) 22
Arrillaga-Egaña (Eibar) 16

Eskudero-Eizagirre (Añorga) 17
Azkarate-Iragi (Huarte) 22

Iribar-Katalina (Usurbil) 22
Gonzalez-Torres (Zaramaga) 13

Lizaso-Pebet (Billabona) 14
Oiaga-San Sebastian (Hernani) 22

## Agenda !!

**Ekainak 6, ostirala**
**Gezurra, gezurraren gainean** antzezlana Sutegin, 22:00etan. Antolatzaileak: Einean Guraso Eskola eta Kutxa. Sarrera, doan.

**Ekainak 7, larunbata**
- **Ipuin kontaketa: "Ane Meaberen Marilurrek aitona Koxme salbatu du".** 17:00etan, Aginagako ludotekan. Plis plas txalo ta jolas 08.

**Ekainak 8, igandea**
- **Alkartasuna Baserritarren Kooperatibaren jaia** (ikus 13. orria).

**Ekainak 10, asteartea**
- **Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia.** 17:00etan, Sutegin. Sarrera doan.

**Ekainak 14, larunbata**
- **Hitzaldia: Sagastien zaintza udan.** 9:30ean, Sutegin. Hizlaria Aitor Etxeandia, sarrera doan.

# Matrikulazio garaia Zumarte Musika Eskolan

**Irailean hasiko da ikasturtea baina matrikula orain osatu behar da. Ikasgaiak ugari aukeran: musika mintzaira, instrumentu ezberdinak... Eta ez bakarrik gazteentzat, eskaintza helduei ere zuzenduta dago. Matrikula osatzeko, Zumarte Musika Eskolara joan behar da izena ematera.**



OSTIRAL HONETAN AMAITUKO DA MATRIKULATZEKO AUKERA. ARGAZKIA: ZUMARTE

2008-2009 IKASTURTEA
EGUNAK: Ekainak 2-6 bitarte.
ORDUTEGIA: goizez (egunero, aste--azkena ezik), 10:00etatik 13:00era.
Arratsaldez (egunero): 16:30etik 19:30era.
INFORMAZIOA: Zumarte Musika Eskola, Kale Nagusia, 45.
TELEFONOA: 943 37 15 94.

IKASGAIAK: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, saxofoia, biolina, perkusioa, klarinetea, abesbatza, eskusoinua, alboka, pianoa, txistua, kitarra, flauta, alboka, talde instrumentalak.
GUTXIENEKO ADINA: 4 urte.

## Santixabeletan, Goitibehera txapelketa

Hilabete eskas Santixabel jaiak hasteko eta antolatzaileek duela aste batzuk egindako deialdiari erantzunez, gazteak jada goitibeherak prestatzen hasiak dira. Hala ere, parte hartzeko deia luzatzen dute antolatzaileek, oraindik denbora dago eta. Erlojuz kontrako lehia izango denez, denbora marka onena egiten duena sarituko dute. Baita ibilgailu onena prestatzen dutenak ere. Egindako ibilgailuak jendaurrean erakutsiko dira gainera.

# Jose Antonio Gorgojoren pintura erakusketa Sutegin

Jose Antonio Gorgojo usurbildar margolariak erakusketa berri bat zabalduko du datorren astelehenean. Usurbilgo baserrien eta paisaien margoak ikusgai izango dira. Ekainaren 21a bitarte iraungo du erakusketak, Sutegiko Erakusketa Aretoan. Arratsaldez bisitatu daiteke Gorgojoren erakusketa, 17:00etatik 20:30era. Larunbatetan, goizez, 11:00etatik 12:30era.



ERAKUSKETAN IKUSGAI IZANGO DEN MARGOETAKO BAT.

JOSUE ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA eta PINTURA
Juan Jose enea, 6 Kalezar
Telf: 606 37 21 05

ERRAZKIN Igeltseritza S.L.
Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679
K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL



Ileapaindegia eta Solarium-a
Loli Lizarralde
Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B © 943 361 971

### Etxebizitza

- Pisua salgai Muna Lurran, 2 logela, komuna eta egongela sukaldearekin elkartua. Oso eguzkitsua. 65m2 guztiz berrituak. Altzariak barne, 250.000 euro. 688651103. Agentziarik ez
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
-Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 51.000.000 pezeta. 696 693 710.
-Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroarekin. 685731792.

### Salerosketak / garajeak

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
-Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
-5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaintzak

Irailean hasteko eta astean hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldean), bi ume zaintzeko eta noizbehinka etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.
- Antxetan zerbitzaria behar da. Astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 16:00etara. Nominan jartzen diona ordainduko zaio. 943 37 03 44.
-Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

#### Lan-eskaerak

- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- Itsas-txakurkumeak salgai: marroi kolorekoak, txertatuak eta oso politak. Tel: 615715493 Elena.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Sagardo Egunean Nintendo DS lite gris bat galdu genuen bolatokian. Eskertuko da itzultzea. 943372151.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipo bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberrian umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Martxoaren 15ean zilar kolorezko eskumuturrekoa brazalete itxurakoa galdu nuen. Barrukaldean "uno d 50" jartzen du. 943 36 52 61
- Martxoak 9an Usurbilgo frontoian xira txurigorri bat galdu dut. 943130036.
- Otsailaren 24an Igeldo inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauzka. 943210330.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzatako beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
-Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



**Zorionak Iban,**
gure etxeko gizon txikiak ekainaren 8an 10 urte beteko ditu eta zorionak eta muxu handi bat eman nahi diogu gurasoen partez.



**Zorionak Aitona,**
Iloba guztien eta familiaren partez Zorionak eta muxu haundi bat!



**Zorionak!**
Ekainaren14an 50 urte ezkondu zinatela. Zorionak aitona eta amona eta muxu handi bat famili guztiaren partez!




**Zorionak Aitana!**
Larunbatean zure urtebetetze eguna da, ondo ondo pasa. Aita, ama eta Mariaren partetik bost muxu handi. Aupa Bruesa!

# 253 lan aurkeztu ziren Felix Aizpurua VII. Literatura Lehiaketan

**Beste behin ere, partehartzea handia izan da Felix Aizpurua Literatura Lehiaketan. Olerkien sailan, 101 izan dira aurkeztu diren lanak. Prosan, 152. Argazkian dituzue aurtengo irabazleak.**

Aurreko astean banatu ziren Felix Aizpurua Literatura Lehiaketako sariak. Mertxe Arzallus (Felix Aizpurua zenaren emaztea), Jabier Pikabea (epaimahaikidea), Joxe Ramon Oiarbide (Udarregi Ikastolako ordezkaria) eta Ainara Uribe (udaleko ordezkaria) aritu ziren sariak partitzen.

Idazleen lana bezain garrantzitsua da epaimahaikideena. Jabier Pikabea, Luis Aranalde eta Juan Luis Zabalaren esanetan, azpian zerrendatu ditugun lanak izan dira txukunenak. Zorionak denoi!



AURREKO ASTEAN EGIN ZEN SARI BANAKETA, SUTEGIKO AUDITORIOAN.

## Aurten sarituak izan diren idazleak eta idazlanak

### PROSA

**A taldea**

**1. Saria:** Maddi Egizabal, "Eztiren istorioa"
**2. Saria:** Ander Iruretagoiena, "Txirristra zaharra"
**3. Saria:** Oier Larrea, "Bartolo potoloa"

**B taldea**

**1. Saria:** Iker Etxabe Larreta, "Jurgiren bidaia Oriatik Horiara"
**2. Saria:** Garikoitz Basurto Korta, "Azeritxo"
**3. Saria:** Itxaso Orbegozo, "Zergatik da hotza izotza?"

**C taldea**

**1. Saria:** Jon Etxabe Telleria, "13 urte... gerrara!"
**2. Saria:** Ander Hernandez Porras, "Mendian bueltatxo bat?"
**3. Saria:** Jon Etxabe Telleria, "300 metroko "maitasun" ukatua"

**D taldea**

**1. Saria:** Garazi Lizaso Manterola, "Sufrimendu baten azken hitzak"
**2. Saria:** Irati Larrañaga Matxain, "Ahizparekiko konfidantza"
**3. Saria:** Manex Torrealdai Gorriti, "Amets gaiztoa"

### OLERKIA

**A taldea**

**1. Saria:** Libe Agirre Plaza "Zaldia"
**2. eta 3. Sariak:** saririk ez

**B taldea**

**1. Saria:** Paloma Huguet Rodriguez, "Urtaroak eta Udaberria"
**2. Saria:** Natali Izagirre Aginaga, "Maitasuna"
**3. Saria:** Arrate Imaz Eizagirre, "Zu ezagutu eta..."

**C taldea**

**1. Saria:** Leire Izagirre Balda, "Agur"
**2. Saria:** Joana Lertxundi Beristain, "Heldu da momentua!"
**3. Saria:** Joana Lertxundi Beristain, "Aurrera jarraitu behar, atzera begiratu ere egin gabe!"

**D taldea**

**1. Saria:** Ugaitz Agirre Zapirain, "Gerra zuen izena"
**2. Saria:** Luken Arkarazo, "Etorkizun galdua"
**3. Saria:** Luken Arkarazo, "Egunsentia"



plis plas
txalo ta jolas 08
Aginagako ludotekan:
ANE MEABEREN
"MARILURREK AITONA KOXME SALBATU DU"
ekaina 7 17:00h
Kaxkoa, herriko frontoian:
TXAN MAGOA
ekaina 19 18:00h
Zubietako frontoian:
POTXIN ETA PATXINEN
"HIRIAN ZE BERRI?"
ekaina 14 17:00h
Antolatzailea:
Laguntzailea: